EUSKALTZAINDIAREN BATZARRE AGIRIA

Bera, 1980-VII-31

BERAKO EUSKAL BESTAK

Bera, 1980-VII-31
Manuel Iriarte
Bera herriko Alkate Jauna

Agurra:

Arratsalde on. *Euskal Besten* lehenengo mendeurrena dela eta, Euskaltzaindia Berara etorri zaigu, batzar ireki hau ospatzera.

Gertakizun hunek egiaz pozten gaitu eta atseginez betetzen. Horregatik, beratar guztion izenean, ongi etorria eman nahi diot lehenik Euskaltzaindiari, eta eskerrik beroenak, hemen mintzatu behar duzuenoi eta entzutera bildu zareten guziei.

Eskerrik asko eta ongi etorriak!

EUSKALTZAINDIAREN BATZARRE AGIRIA BERA-N
(Nafarroa)

1980, Abuztuak 1

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren agur-hitzak:

Manuel Iriarte, Bera-ko Alkate jauna.

D. Jacinto Argaya, Jaun Apezpiku agurgarria.

Euskaltzaindiko jaunak.

Beratarrak, eta hainbeste lekutatik honera etorriak.

Jaun-Andreak: Arratsalde on, eta agur bero bat denoi!

Bera-ko hiri ospetsu eta sonatu honetara etorri da gaur Euskaltzaindia. Hobeki esan, atzo etorri zen. Jadanik eginak ditu hemen bi bilkura: bat, gure Elkartean ziren bi hutsarteak betetzeko. Beraz, bi euskaltzain edo "académico" berri izendatu dira hemen; bat, gainera, nafarra, Aita Francisco Ondarra, Bakaikuko semea. Bigarren bilkura, heldu den urtean euskal Dialektologiazko ikasaldi bat antolatzeko izan da. Hirugarrena, berriz, arratsalde honetako hau dugu.

Galde lezake zenbaitek: Bilera hauek egiteko, zergatik hautatu du Euskaltzaindiak Bera-ko hiria?

Erantzuna agirian dago. Bera-ko Udaletxeak gonbidaturik etorri da Euskaltzaindia honera, eta bazen horretarako arrazoi nagusi bat: egun hauetantxe betetzen dela euskal bestak hiri honetan ospatu zireneko mendeurrena.

Bai. Herriko bestekin batean, orain ehun urte, euskal bestak egin ziren hemen. Eta gertakari horren oroitzapena izan nahi du guarko ospaketa honek.

Beraz, mila zortzirehun eta larogeian euskal bestak ospatu ziren Bera-ko hirian. Justu, egun hauetan betetzen dira ehun urte.

Euskal literaturaren gora-beherak pixka bat hurbildik ezagutzen dituenak badaki urte hori —mila zortzirehun eta larogeigarren urtea— mugarri antzo nabarmentzen dela. Urte horren inguruetan kontzientzia esnatze bat gertatzen da gure herrian. Euskara, mendez-mende kondaira aurreko denboretatik heldu zaigun ondasun hau eta orain hilzorian ikusten duguna, salbatu nahi da, bizirik atera nahi da.

Kontzientzia berri eta zoli horren seinaleak ugari agertzen zaizkigu urte horren inguruan. Bat, euskal besten ospaketak. Euskal bestak Ipar Euskal-Herrian sortu ziren, Abadia jaunaren eraginez, baina orain muga iragan eta hemengo Euskal-Herrira zabaltzen dira. Lore Joko (Juegos Florales) edo hitz jostaldiak ere orain antolatzen hasten dira.

Euskal aldizkariak ere urte muga honen inguruan sortu ziren: lehenik Iruñeko *Revista Euskara* eta gero Donostiako *Euskal-Erria* aldizkaria, urte luzez biziko dena. Beronen orrietan bildu ziren euskararen kezka eta arrangura sentitzen zuten guztiak.

Nafarroak bazuen urte haietan gizon handi bat euskarari emana, Arturo Campión, eta Nafarroan bazen, baita ere, "Asociación Euskara de Navarra" delako taldea.

Kultur mailan, urte horren inguruan, hainbeste obra zahar eta berrik argia ikusten dute. Hona hemen horietako batzuen tituluak: José Manterolaren: *Cancionero Vasco;* A. Campionen: *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara;* Mogelen: *Peru Abarca;* Larramendiren: *Corografía;* Aizkibel eta Novia de Salcedoren hiztegiak; Astarloaren: *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva,* etab.

Inprentak, orain arte ez bezala, saiatzen dira gure gauzen aldeko lanean. Nori berea zor zaio, eta, honetan, aipamen berezia zor zaio, Tolosako Eusebio Lopez jaunari.

Ereintza honek bere fruituak ekarri zituen, nola ez? Aro berri baten ataria izan zen hura.

Handik urte gutxitara, 1886an, eta Durangoko euskal bestetan, hain zuzen, euskal Akademia baten asmoa lau haizetara zabaltzen du Artiñano jaunak. Anitz urte igaroko da oraindik asmoa egia bihur dadin arte, baina nolabait Euskaltzaindia bera ere euskal besten fruitua dela esan daiteke.

Baina zer da Euskaltzaindia? Zertarako da? Zer egin dezake euskararen alde? Zer lan darabil eskuen artean?

Zuek baduzue, noski, Real Academia Española-ren berri. Gaztelania zaintzeko eta gidatzeko Felipe V.ak ezarri zuen batasun edo gorporazio hau. Frantzian ere, frantsesa zaintzeko, bada Académie Française delakoa, Richelieu Kardinaleak ezarria. Gailego hizkuntza zaintzeko ere hor da Real Academia Gallega, katalana zaintzeko Institut d'Estudis Catalans, eta abar.

Zer dira, bada, horiek? Hizkuntza baten ardura eta arta hartzeko jarririk dauden elkargo edo batasunak; hizkuntza hura nolabait gidatu, bultzatu eta indartu behar dutenak.

Euskaltzaindia, euskararen Akademia ere, horretarakoxe da, bada. Euskara, euskaldunon mintzaira, zaindu, gidatu, landu, indartu, eta daukan baino osasun hobeagoan jartzeko.

Bai. Inork izatekotan, euskarak du Akademia baten behar eta premia gorria. Euskararen patua mendeetan barna benetan harrigarria izan da. Hona hemen herri ttipi bat, hizkuntza berezi baten jabe dena, guztiz bestelakoak diren hizkuntzez inguratua. Hizkuntza honek, euskarak, legearen aldetik ez du inongo babesik izan. Eskolan sartzea debekatu zaio. Gizarte prestijiorik ez du berekin. Guti landua, bertan behera utzia. Halaz ere, bere basa itxuran eta ahal izan duen bezala, iraun du. Baina zer gertatu behar zitzaion ez zen zaila asmatzen. Galduaz joan da, gainbehera amilka etorri da, inguruko hizkuntza boteretsuek itoa.

Oraino, lehengo mendeetan, etxeko eta auzoko bizimoldeak indar handia zutenean, aisago gordetzen zen euskara, eta bai belaunez-belaun pasatzen ere. Gaur, ordea, bizimoldea, ohiturak eta dena iraulkatu denean, ez da berdin gertatzen. Euskaldun irautea askoz ere zailago bihurtu da.

* * *

Baina aitzina iragan baino lehen, diodan hizño bat euskararen aldeko obra hau funtsezko arrazoietan oinarritua dagoela erakusteko. Izan ere, hemen galde lezake zenbaitek: Eta zergatik salbatu nahi dugu euskara? Zer axola du euskaldun izan edo ez izan? Xoko bateko hizkuntza ttipi eta bakarti baten jabe izatea baino ez ote da hobe hizkuntza handi eta zabalago baten jabe izatea?

To, goazen zatika. Euskara maitatzeko, begiratzeko eta lantzeko zer arrazoi dagoen, nik hemen, bistan da, ezin dut hedatsuki azaldu, luzeegi joango baitlitzateke hitzaldi hau. Gainera, hor dago *Euskararen Liburu Zuria*, arrazoi horiek ezagutu nahi dituztenen faboretan Euskaltzaindiak argitaratua.

Gauza bat esango dut soilki. Edozein herrik, handi nahiz ttipi delarik, nork bere hizkuntza atxikitzen du. Zergatik? Hartan bere izakeraren eta nortasunaren irudia ikusten duelako. Guk geurea arbuiatu eta gaitzetsiko bagenu, arlote eta zozo batzuk bezala jokatuko genuke.

Etsenplu bat aipatzeko, hor dugu Israelgo herriarena. Hizkuntza bat behar zuen. Bat hautatzekotan, bazirudien munduan zabalduena dena, ingelesa hautetsi behar luketela. Eta ez. Zein hartu zuten? Berena, hebraiera, nahiz eta hizkuntza hori aspaldi hilik egon, nahiz eta hizkuntza hura inork ez jakin. Eta hilik eta ehortzirik zegoen hizkuntza berpiztu dute. Zergatik? Berena delako. Inork ere ez du aita edo ama maitatzen handi edo aberatsa delako,

berea duelako baizik. Berdin edo antzera gertatzen da hizkuntzaz. Baina, hori bai, israeldar bakoitzak badaki hebraieraz gainera, beste hizkuntza zabalago bat ere, nahiz dela inglesa, frantsesa, española, arabea, errusoa..., eta behar denean erabiliko du, baina etxe barnerako beti berena.

Guk ere euskarari atxikiak izan behar dugula diogunean ez dugu esan nahi beste hizkuntzarik ez dela ikasi behar. Besteak ikasi bai, baina nork berea utzi gabe.

Eta honetan maiz oker-adituak egoten direlako, beste hitz bat ere esan nahi dut: euskal zaletasuna ez dela politika. Euskara guztiona da, herri baten ondasuna eta ondarea da. Beraz, euskaldun orok, politika batekoa izan, bestekoa izan, eskubidea eta eginbidea du hemen. Guztiok dute hemen parte eta zeregin, zeren euskara guztiona baita. Bego bada hau garbi. Euskaltzaindia, euskararen aldeko bere lanean, ez dago ezein politikari lotua. Berak uste du, gainera, maila banatan daudela bi gauza hauek: euskara eta politika.

* * *

Egungo egunez euskara bezalako hizkuntza batek suntsitze kausei nahi baldin badie buru egin, behar ditu izan, besteak beste, zenbait baliamendu, zenbait bide, tresna eta laguntza bere alde. Eta horietako bat da Akademia.

Euskal Akademia baten beharraz aurki ohartu ziren euskaltzaleak eta euskararen arrangura sentitzen zutenak. Akademia hori ez da, noski, euskarak dituen aje guztientzat erremedioa, baina bai zerbait.

Basa itxuran eta bertan behera utzia bizi den hizkuntza batek behar du honelako batasun edo elkargo bat, bestetarako izango ez bada ere, hizkuntza hori lantzeko eta eskolan irakatsia izateko, arau gidari batzuk eman ditzan.

Akademia honen beharraz mintzatu ziren joan-mendean Aizkibel, Duvoisin, Ulibarri, Manterola, Artiñano etab. Baina gauza ez zen mamitu, ez zen gorpuztu mende honen hastapenean baizik; 1918.urtean, alegia. Orduan gure lau Diputazioek —Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroakoa— erabaki zuten Euskararen Akademia muntatzea eta laguntzea. Hamabi euskaltzain edo "académico" izendatu ziren, eskualde eta euskalki denetatik hautatuak. Horietaz gainera urgazle edo laguntzaile eta euskaltzain ohorezkoak ere jarri ziren. Azkenik, 1976. urtean, lege berezi baten bidez, Espainiako Errege Juan Karlosek Akademia honen onartze eta ezagutza egin du.

Euskaltzaindia ez da, bada, zerbait pribatu. Erakunde publiko bat da, herriko eta erresumako agintariek ezarria eta aitortua.

Bi sail edo eremu ditu Akademia honek: Iker-saila eta Jagon-saila. Hau da: alde batetik, euskara ikertzea, aztertzea, estudiatzea; eta bestetik, zaintzea, bizi dadin eta lant dadin neurriak hartzea.

Sortze egunetik Euskaltzaindiari egotzi zitzaion helburu handienetako bat —handiena ez bada— honako hau izan zen: irakaskuntzarako eta idatziz-

ko zereginetarako hizkera batu bat moldatzea. Euskal Herri guztirako balio lezakeen euskara orokor bat, euskalki guztietako osagaiez osotua prestatzea.

Egungo egunez euskaltzainen numerua doblatu egin da. Hastapenean hamabi ziren, orai hogei eta lau. Laguntzaileak, berriz, ehundik gora. Ohorezkoak ere hor dira. Horien artean ditugu sortzez euskaldun ez diren jaun jakintsu batzuk: Karl Bouda, Antonio Tovar, Norbert Tauer, etab.

Esan gabe doa nafarrak ere badirela euskaltzain osoen artean: Aita Damaso Intzakoa; Aita Francisco Ondarra; Aingeru Irigarai jauna; Jose M.ª Satrustegi. Laguntzaileen artean, berriz, hor da Mariano Izeta, baztandarra; Jiurko jauna, eta beste asko. Ohorezko euskaltzainetan, hor da aita Jurgi Riezukoa.

Euskaldun frantsesak ere baditugu, noski. Euskara bere osotasunean hartzen du, bada, Euskaltzaindiak.

Eta zer egin du Akademia honek 60 urtez?, galdetuko didazue agian. Nik hitzaldi motx honetan ezin konta dezaket egin duen guztia. Hauxe bakarrik esango dut: Akademiak hor du bere aldizkaria, *EUSKERA:* gerra aurreko garaian 16 tomo agertu ziren; gerra ondoan 25. Bilduma horretan bada zernahi lan: gramatika lanak, hiztegi lanak, euskalki berezi batzuen azterketak, testu zaharren argitalpenak, euskal idazleei buruz xehetasunak, Euskaltzaindiaren agiri eta erabakiak, etab.

Euskara zaintze arloan Euskaltzaindiak aurpegia atera izan du, baita une txarretan ere. Sariketak, biltzarrak, ospakizunak, bertsolari txapelketak etab. muntatu ditu. Euskal Irakasle titulua sortu du, etab.

Hiztegi espezializatuak ere egin ditu edo egiten ari da: Merkatalgokoa, Etxegintzakoa, Ikastolakoa, Pertsonen izenena, Udalen izenena. Euskararen Lekukoak izena duen liburu bildumari ere hasiera eman dio, eta, hain zuzen, lehen liburukia Apezetxea jaunak prestatu du aspaldiko autore nafar baten —Elkanoko Joakin Lizarraga— lana argitaratuz. Bigarrena ere atera da, Etxepareri buruz.

Aurten, berriz, heldu deu hilabetean, atzerriko euskalarien jardunaldiak egingo dira Euskal Herriko Unibertsitatean, Leioan, Euskaltzaindiak eraturik, noski.

Lehenago ere esan dut Euskaltzaindia aparteko modu batean euskara batu bat moldatzeko sortu zela, eta horretan da. Argitara berri ditu *Euskal Aditz Batua, H letraren ortografi arauak, Erakusleak, Deklinabidea,* etab.

Hortik aitzakia hartuz, batzuk hor ari dira esaten Euskaltzaindia euskara batuaren alde eta euskalkien etsai bihurtu zaigula. Hori, ordea, ez da egia. Euskaltzaindiak uste du denentzat dela tokia. Baina, hori bai, euskara mota bat guztion artean lokarri izanen dena behar-beharrezkoa dela ikusten du eta lan hori bultzatu nahi du. Hori egiteko mandatua Euskal Herriak berak eman

baitzion eta egiten ez duen bitartean, herriaren aurrean dugun zorra ez dugu kitatzen.

* * *

Jaunak: Ikusten duzuenez lan gaitza da. Euskaltzaindiak berak bakarrik dena egin dezakeela pentsatzea, txorakeria da. Zorionean gaur-egunean badira Unibertsitateak ere eta horietan badira Euskal Filologi Sailak.

Zernahi gisaz, eskabideak gero eta handiagoak eta ugariagoak datozkigu burugainera, eta erantzuteko, langile guti da. Halaz guztiz, bere ahalen neurrian saiatzen da Euskaltzaindia.

Euskal Herrian bada —hala uste dugu— gogo eta borondate gure mintzaira kenka larri honetan bizirik ateratzeko. Eta zinez, guztion lana da hau. Euskarak iraungo du baldin euskaldunak, euskaldun orok, egiaz eta benetan obra hau berea bezala hartzen badu.

* * *

D. Manuel Iriarte, alcalde de la villa de Vera de Bidasoa.

D. Jacinto Argaya, Obispo dimisionario de San Sebastián.

Sres. Académicos,

Beratarras, y cuantos habéis acudido de tantas partes a este acto académico.

Señoras, Señores:

En atención a los que ignoran el euskara voy a explicar brevemente lo que es la Academia de la Lengua Vasca, cuáles son sus objetivos y sus trabajos. La Real Academia de la Lengua Vasca —Euskaltzaindia— se reúne hoy en Vera, invitada por el Ayuntamiento de esta villa, con motivo de cumplirse este año el centenario de las fiestas éuscaras, que aquí se celebraron en 1880.

Pero acerca de las fiestas éuscaras, acerca de su fundador, patrocinador, etc., se ocupará el académico Sr. Davant.

Mis palabras se limitarán, como he dicho, a dar una breve información sobre la misma Academia.

Todos saben, sin duda, que existe una Real Academia Española y también una Academia Francesa. Lo que ya no es tan conocido es que también existe una Real Academia Gallega, un Institut d'Estudis Catalans, una Real Academia de la Lengua Vasca —Euskaltzaindia—, etc. Estas Academias, como es obvio, son unas instituciones que tienen la misión de velar por las lenguas respectivas.

Si hay alguna lengua que tenía necesidad de una Academia, ésta es precisamente el euskara. Conocéis poco más o menos su caso y cuál ha sido su suerte en la Historia. Es la lengua de un país pequeño, lengua muy diferente

de las vecinas que le invaden el campo. Ha vivido secularmente como ha podido, en un estado de desamparo total, de indefensión legal, sin acceso a la escuela y a los grandes medios de difusión, sin apenas cultivo, sin prestigio social. Cuál iba a ser su futuro, de seguir así las cosas, no era difícil adivinar. Acabaría muriendo, acorralada y ahogada por otras lenguas más poderosas.

Tal vez se pregunte alguno: ¿Y qué más da? ¿Importa tanto el que desaparezca una lengua? Al fin y al cabo no nos volveremos mudos, y a falta de una lengua, tendremos otra para decir nuestras cosas.

No voy a extenderme aquí en la exposición de las razones o motivos en que se fundamenta este anhelo por salvar el euskara. El que quiera profundizar en el tema puede leer *El Libro Blanco del Euskara,* publicado por esta Real Academia.

Sólo diré una cosa: todo país, sea pequeño o grande, se esfuerza por mantener su lengua. ¿Por qué? En el fondo porque ve en él el espejo o imagen de su propio ser, de su identidad como pueblo, de su personalidad, la principal característica que lo configura. Esto el vasco lo ha captado con notable intuición al llamar a su país Euskal Herri, que quiere decir "país del euskara", y al llamar al vasco "euskaldun", o sea, el que posee el euskara. Por tanto, sin el euskara no hay país vasco ni vascos.

Con esto no queremos decir que el euskaldun no deba saber también otras lenguas más extendidas y necesarias para la vida. Claro que las deberá saber, pero sin repudiar la suya.

Creo también que es necesario que esta empresa pro euskara se mantenga al margen y por encima de las distintas opciones políticas. En un país puede haber, y hay legítimamente, una pluralidad de opciones políticas, pero la lengua es algo que concierne a todos y no debe por tanto vincularse a una opción concreta (1).

Es claro que la lengua vasca, si quiere hacer frente a las causas de disolución que luchan contra ella, necesita ciertos medios y recursos.

Uno de ellos, cuya necesidad se dejó sentir ya vivamente en el siglo pasado, era el de la creación y existencia de una Academia de la Lengua. Aizkibel, Duvoisin, Ulibarri, Manterola, Artiñano y otros se expresaron en este sentido. Pero el proyecto no se plasmó en realidad hasta el año de 1918. Nuestras cuatro Diputaciones —o sea, de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya— deciden en esta fecha crear y sostener de mancomún esta Institución. Al principio los académicos de número eran 12 y fueron escogidos de todas las regiones del país y variedades de la lengua vasca. Ultimamente, en 1976, S. M. el rey de España Juan Carlos I, por un expreso Decreto, ha dado su

(1) Esto lo he dicho muchas veces durante el tiempo del franquismo. Pero creo que ahora nuevamente hay necesidad de recordarlo.

espaldarazo y refrendo a esta Academia. No se trata, pues, de una asociación o grupo privado. Se trata de una Institución pública, que ha recibido su encomienda de las mismas autoridades.

El campo de la Academia es doble: por una parte la investigación de la lengua, por otra la tutela de la misma.

Entre los quehaceres que se le encomendaron uno de los principales —si no es el más principal— es el de laborar por la constitución de una lengua común y uniforme que pueda ser válida en todo el ámbito del país a efectos de su utilización en la enseñanza, en los medios de comunicación, menesteres literarios, etc.

He dicho que en un principio los académicos de número eran 12; hoy son 24. Los correspondientes pasan de 100. Entre los académicos de honor figuran algunos sabios extraños al país y beneméritos en el campo de los estudios vascos.

Por supuesto que Navarra está dignamente representada en la Academia. Académicos de número navarros son el venerable P. Inza, único superviviente de la primera época de la Academia; el Sr. A. Irigaray; D. José M.ª Satrústegui. Correspondientes al Sr. Mariano Iceta; J. Apecechea; Jiurco (2) y otros. También los vascofranceses forman parte de Euskaltzaindia, de modo que ésta abarca toda la Euskal Herria.

Y bien —diréis—: ¿qué ha hecho la Academia en los 60 años que cuenta de vida?

Yo no puedo extenderme aquí en la enumeración de la labor realizada. Sólo diré que el órgano de la Academia *EUSKERA* cuenta ya con 40 tomos. Como podéis suponer, en sus páginas hay una gran multiplicidad de trabajos: trabajos de gramática, de diccionario, estudios dialectológicos, de edición de textos, decisiones y acuerdos de la Academia, información sobre autores vascos, etc.

Por lo que se refiere a la sección tutelar, la Academia ha dado la cara, aun en tiempos difíciles, organizando actos de afirmación y promoción de la lengua, concursos literarios, torneos de bertsolaris, celebración de Congresos, etc. También ha creado el título de profesor de euskara. Pasan de 2.000 los que lo han obtenido en estos últimos años. Se han confeccionado, o se están confeccionando, diversos diccionarios especializados. Se ha iniciado una colección de libros titulada "testigos del euskara" donde tendrán cabida autores de todas las variedades y épocas: acaban de salir dos vólumenes, uno preparado por el Sr. Apecechea, dedicado precisamente a un autor navarro, Joaquín Lizarraga de Elcano. El segundo consagrado a Dechepare, también

(2) Académico de honor el P. Jorge de Riezu. Ayer mismo fue nombrado un nuevo académico de número navarro: el P. Francisco Ondarra.

bajonavarro, protopoeta vasco, que escribió en 1545, preparado por Fco. Altuna. El mes próximo van a celebrarse los primeros Encuentros Internacionales de Vascólogos, al que acuden sabios de todas partes, interesados por el euskera.

Tal vez en los últimos años la Academia ha dedicado atención preferente al tema de la formación de la lengua literaria común. Ya Campión y Broussain en un célebre Informe decían que este problema del vasco literario común es "acaso la más grave de las cuestiones que pueden someterse a los debates y sentencia de nuestra Academia.

Pero no se crea por esto que la Academia sea opuesta al cultivo de los dialectos y variedades de la lengua vasca. Ella cree que hay lugar para todo. Mas habida cuenta de la urgencia del problema, no podía por más tiempo desatender a la encomienda que recibió del país en orden a crear el euskara común. Sin este instrumento el euskara no puede tener entrada franca en la escuela ni en los medios de comunicación. Y privar de estos medios a la lengua es condenarla a perecer irremisiblemente.

Como veis, el quehacer es grande. Las responsabilidades y empeños que recaen sobre Euskaltzaindia son de día en día mayores, y los obreros pocos. Menos mal que hoy contamos también con Universidades que tienen departamento de filología vasca. Euskaltzaindia se esfuerza por responder a tantos empeños en la medida de sus posibilidades. Pero no olvidemos que la tarea de salvar el euskara es de todos. Sólo si el pueblo euskaldun la toma a pechos, como obra suya, como en realidad es, podrá salvarse el euskara.

ANTONIO ABADIA URRUSTOI

Bera, 1980-VII-31

J. Louis Davant

Nor zen Antoine (edo Antonio) D'ABBADIE D'ARRAST?

Mila-zortzi-ehun-eta-hamarrean sortu zen, Irlandako Dublin hiriburuan. Ama, irlandesa zuen, eta protestanta: andere *THOMPSON* bat. Berak idazki zenbait izenpetu du "Thompson D'Abbadie D'Arrast", "Antonio" izen ttipia erabiliz batzuetan.

Aita, berriz, Michel edo Arnauld-Michel, Ziberoko jaun xume bat, Abat (edo Apat) laiko, Urrustoi Abadiako jauna. Urrustoi da horren –eta ene– herria, Zibero Pettarreko azkena eta behar bada ttipiena. Erdaraz eman ziguten "*ARRAST*" izena.

Frantziako iraultza haundian, Irlandara ihes egin zuen Arnauld-Michel Abadia Urrustoik. Han ezkondu zen andere Thompson delakoarekin, eta sei haur ukan zituzten: hirur alaba eta hirur seme. Gehiena edo zaharrena, Antonio zen.

Diotenaz, Irlandan arma saltzetik aberastu zen Arnauld-Michel. Ordukotz Englesen aurka gudukan ari baitziren Irlandesak, armak Bilbotik erakartzen omen zizkien euskaldun aterbetuak. Ordukotz agitzen baitziren holako gertakariak.

Irlandatik itzuli zen familia, eta hogeian kokatu Frantziako Tolosan. Lan-oporrak Audaux-eko jauregian pasatzen zituen, Biarnoko probintzian, Urrustoirik hamar kilometretan.

Ikasle izigarri argia izan zen Antonio, bai mintzaira eta hizkuntzetan, bai zientzia eta jakintzetan. Sorbonan, *ARAGO* haundiaren ikasle da. Bere anaie Arnauldekin, Etiopiara joaiteko prestatzen ari da gisa oroz: bai izpirituz, bai gorputzez.

Nil ibaiaren iturri-sorgiak aurkitu gogo dituzte. Ez dira Ez dira haietara sekulasantan helduko. Baina, bitarte hortan, beste zerbait aurkituren dute, ta ez guti. Jakintzaz eta bestela ere, zinez aberastuko dira berak eta euskaldungoa.

Lehenik Antonio Brasilera bidaltzen du *ARAGO*-k. Han astronomiazko eta geografiazko berrogei-ta-hamar ikertze egiten ditu, mañetismoaren gorabeherak eguzkiaren araberan aztertuz.

Hogei-ta-sei urtetan, Agosti *XAHO*-ren ezagutzak egiten ditu Antonio Abadiak. Adiskidantzatan sartzen dira, eta elgarrekin agertuko dituzte geroxago aipaturen dizkitzuedan bi liburuak.

Goazen bada Etiopiara. Manatzeko dohaturik agertzen da han Arnauld anaia. Etiopiako politikan sartzen da erdiz-erdi, gerlan ere ari da. Aitzindari egiten dute hango buruzagiek. Guduka haundi bat irabazten du, eta horren ohoretan, "Ras Mikael" izendatuko dute, hau da Mikael printzea (ezen aita bezala deitzen da).

Oso bestelakoa da Antonio. Borroka gogorra ez du maite. Jendea xuxenka bortxatu baino, inguruz-inguru, itzuli-mitzulika beretu nahiago du; bere xedetara heltzeko eta xederetara biltzeko, behar den denbora, behar den astia hartzen du.

* * *

Bestalde, ez da hanbat politikaria. Jakintzari baizik ez du eskerrik: geografiari, astronomiako eta tokiko hizkuntzei lotzen de errotik. Sail horietan oso jakintsu eta famatua jalgitzen da, liburu asko idatziz, artetik amarina-frantzes hiztegi bat ere.

Elgar osotzen eta laguntzen dute bi anaiek. Bere ikertzetan Arnauld-ez ederki baliatzen da Antonio jakintsua.

Biak Etiopiako negus edo errege nagusi den Menelik haundiaren adiskide dira. Bakoitzak bere eran laguntzen dute, bai Etiopiaren batasunari buruz, errege xumeagoen aurka, bai Engles eta Italianoen aztaparretarik baztertzen.

Horri esker, ontasun ederrak Etiopiatik dakartzate: Antoniori behintzat ederki baliatuko zaizkio, jakintzaren eta euskaldungoaren alde.

* * *

Hameka urtez Etiopian ari izanik, Euskal-Herrira itzultzen dira bi anaiak, berrogei-ta-zortzian. Hemen kokatzen zaizkigu: Arnauld, Ziburuko Elorriagan; Antonio, Hendaiako Aragorrian (1849-an erosi zuen); eta hirugarrena, Xarles, hau protestanta, Baigorriko Etxauz jauregian.

Aragorrian, etxalde haundi baten erdian, Abadiako jauregia eraikitzen du Antoniok (1862-1870). Arkitekta, Viollet-le-Duc famatua du. Jauregiari emaiten dio irlandes itxura bat.

Artetik, Dauphine probintziako andere batekin ezkondu zen Antonio (1859). Baina haurrik gabe hilen dira, bera lauetan-hogei-ta-zazpi urtetan (1897), emaztea lau urte berantago (1901). Jauregiko kaperan ehortzirik daude, aldare pean.

Emaztearen gatik, Arnaud-en familiarekin kexatu zen, eta hartarik oso berezi Antonio. Bederatzi haur baitzituen beste familiak, azkena eskatu zion Antonioren emazteak, eta ez ardietsi. Gero burutik nahasi zen guti edo asko, aski segurrik senarrari biziaren gastatzeko. Arnauld anaia hil zelarik, Ziburun ehortzi baitzuten, haren hiletara joan zen Antonio, emaztearen ixilik, eta bigarren galeriatik hipaka entzuten omen zen.

Abadiako leihoetarik, zeruko izarren miatzen ari zen Antonio, larga-bista haundi baten bidez. Hil zenean, larga-bista aurkitu zuten anaiaren etxeari buruz kokatua.

Dena dela, bere ikertze lanen jarraitzeko, Frantziako Institut delakoari utzi zituen jauregia eta inguruko lurrak.

Hamalau hizkuntza ba omen zazkien: hamalau mintzaira horietan idatzirik, erran zahar batzuek utzi ditu, jauregiaren barneko pareta eta arterrietan marrazkituak: lehen-lehenik euskarazkoak, bistan dena.

Zientzia eta jakintzen Akademian, urgazle hautatu zuten. Laster Akademikide oso egin zuten. Eta azkenean, Akademiburu aukeratu zuten.

BERA-KO BILTZARRA (1980-VIII-1)

Akademian ez zuten nahi zenbaitzuek, ezi kristau suharra zen, oso gaizki ikusirik baitzen gauza hori, toki eta denbora haietan. Beraz gorritu behar izan zuen Arago haundiak. Jakintsu lagunei erran zien, bizi-bizia: jaunak, gure hautuaren egiteko, ez dugu Abadiaren barneko sendimentu eta sinestei kasu egin behar, baina bai kanpoko lanei bakarrik. Bestenaz ere, dohatsu holako sinestea duena. Nik bederen, beste hainbeste nahi nuke. Hori bai, ongi errana.

* * *

Geografiaz eta astronomiaz bezainbat axolatu zen euskaldungoaz. Euskararen maitasuna, aitaren ganik zukeen, hain segur, zeren oso euskalzalea zen Arnauld-Michel Abadia. Adibidez, Lécluse jaunaren euskal gramatika batean parte hartua zuen.

Euskaraz idatzi du Antoniok, guti bada ere, "Zubernoatikako gutun bat" (1864). Euskaratzaz eginak izan ziren azken lanez ikertze bat agerturik bazuen aitzinetik (1859). Hortan Lucien Bonaparte printzearen euskal lanak laudatzen ditu, eta Inchauspe apezaren euskal aditza (Le verbe basque) oroz gainetik goraipatzen.

Baina izkirioz baino gehiago, aholkuz eta diruz zuen euskaldungoa lagundu. Lehenik pilotari lotu zen. Bera pilotari pollita omen zen esku huska. Beraz esku jokoaren alde primak eman zituen, bai eta errebot edo botaluzearen alde. Atxiki haundia ez zuen hain begi onez ikusten. Har gatik, hura ere lagundu zuen. Urruñako pilota plaza bere sakelatik eragin zuen eta haren estrenatzeko, jai batzuek antolatu zituen, errebot partida haundi batekin, berrogei-ta-hamekan.

Berrogei-ta-hamahiruan hasi zituen Euskal Jaietan olerkarien zeingehiagokak, bai eta berrogei-ta-lau urtez atxiki bere diruaz. Hameka urtez Urruñan ospatuko dira, 13 urtez Saran. Gero herriz-herri. Eta horrela, hego aldean ere eginen dira: lehenik Elizondon, hiruetan-hogei-ta-hemeretzian; eta, hain zuzen, hiri hortan ospatu dugu jaz mendeurrena.

Ondoko urtean, Berako hiri honek zuen Euskal-Jaien ospatzeko txanda. Eta gertakari horren mendeurrenak aurten biltzen gaitu Berako udal-etxean.

Donibane-Lohitzuneko jaietan ere parte haundia hartu zuen Abadiak, lauetan-hogei-ta-hamabietik hil arteraino, horietan euskaldungoa ederki sartuz. Deitzen zituen olerkariak, probintzia guztietarik dantzariak, Ziberoko maskaradak eta pastoralak, HEGUIAPHAL bat errejent agertzen zela ordukoz.

Euskarazko liburu idazleak akulatzen eta saristatzen zituen, Ziberoan diogun bezala "thai" gabe, hau da eten gabe. Euskaraz ongi ari ziren haurrei ere primak emaiten zizkien Antonio Abadiak.

Bi hitz abadia-ren politikaz

Guzti horien artetik, Hendaiako auzapez izateko artea ediren zuen (1871-75). Egia erran, herri ttiki bat zen, duela ehun urte, Hendaiako hiria. Dena dela, ez zen hor alfer egon Abadia: zubi batzuek eragin zituen, karrikan argia ezarri, herriko-etxea, ondartza ere antolatu, eta abar...

Politikan, zein alderditakoa zenn? Eskuindarra zaitekean, baina errabiarik ez hertsikeriarik gabe. Hain bat erregetiarra zela iduri luke, baina hortan ere ez zen gogor agertu.

Napoleon hirugarrenaren adiskide haundia zen. Honek Abadiako jauregian azken harria ezarri behar zion. Baina gerlan bere tokia galdurik, erbestera joan behar izan zuen Enperadoreak, Biarritzeko mainuak utzirik.

Beraz, harri bat eskas da Hendaiako Abadian, adiskidantzaren lekuko ederra bere hutsean.

Karlista familia batzuekin harreman tinkoak eta hestuak zituen Antoniok, bereziki *LARDIZABAL* eta *OLAZABAL*- tiarrekin.

Zer nahi gisaz, ez zen politikazale beroa. Jakintza eta euskaldungoa zituen bere amorio eta inganioak. Bestalde, oso baketsua zen, ona eta eztia. Aharrak eta ixtorioak ez zituen maite; haietarik urruntzen zen ahal bezainbat.

Olerkarien zein-gehiagoketan, politikariz ez zuen nahi: hiruetan-hogeita-hamaseian, deus ere gabetarik egon zen, nahiz prima merexi zukeen, *ZALBUBY-ADEMA* senpertar apezaren kantu bat, "Biba Errepublika" delakoa; Errepublikaz trufatzen zelakoz baztertu zuten. Alta ez zen ondorik ere gorrietarik Abadia.

Bi liburutan parte hartu zuen, bere lumaz, beste ziberotar euskalzale batekin: hau dugu Agosti *XAHO* atarraztarra, ezkerreko gizona, liberala ere. Har gatik *ZUMALA-KARREGI* jeneralaren alde jarri zen Xaho, lehen karlistadan, euskal abertzalegoak bultzaturik. Bi Ziberotarrek elgarrekin lan egin zuten batasunezko punduetan, bestalde zituzten bide zeiharrak ukatu gabe. Huna beraz horien bi liburuak:

1.—Hogei-ta-hamabostean, Xaho-k agertu zuen bere "Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques" (hau da: Nafarroan egindako itzulia Euskaldunen jazarkunde denboran). Hitz-aurrea edo aitzin solasa egin zion Abadiak, eta "Bulletin de la Société de Géographie" delakoan, liburuaren bilduma bat ontzen dio, goraipatuz horren suzko idazkera eta gaitzeko abertzalegoa.

2.—Hogei-ta-hamaseian, euskal gramatika bat elgarrekin agertzen dute Xaho-k eta Abadia-k: "Etudes grammaticales sur la langue basque". Thompson d'Abbadie de *Navarre* izenpetzen du hor Antoniok, Nafarroaren izena ohoratuz berriz ere.

Abadia-ren euskaldungoaz beste bi ele

Jauna zen Abadia, baina xehea, eta ber denboran kanpainakoa. Kristaua zen, apeztiarra ere. Euskararen salbatzeko, apezen gain kondatzen zuen. Alta bada, apez euskalzaleekin eskuz-esku lan egin bazuen, Elizako buruzagiekin ez zen hain ongi atera. Seminario haundian, bere diruz, euskararen erakasteko aulki baten eraikitzea eskaini baitzuen, eskubide hori ukatu zioten Diosesako buruzagiek. Gobernuko eskoletan bezala, Baionako seminario haundian eta Larresoroko seminario ttipian debekaturik zen euskaraz erakastea.

Baina badakigu prestua zela Abadia, kasailen etsai.

Euskaldunek deitzen zuten "Aita Abadia", arrotzek berriz "Euskaldunen Aita", eta zerbait erran nahi duke horrek. Izen eder hori ez ote du merezi Antoniok?

Bai, uste dut oraidinoko euskaldungoaren aita ukan dugula, ipar aldean behintzat: "Euskaldun-Fededunen" aita, kulturazale hutsen aita, olerkari zeingehiagoken aita. Hots, hego aldean "apolitica de derecha" deit zenezaketen euskaldungoa baten Aita. Baina hori gabe, non litzateke gaur ipar aldearen euskaldungoa?

Erran izan da, eta idatzi ere, Abadiak eratutako zein-gehiagokek ez dutela euskal poesiaren maila goratu, ez dutela olerkia berezi bat-bateko bertsularitzatik. Egia daiteke, ipar aldean behinik-behin. Baina herri kultura atxiki, hazi eta zabaldu dute hain segur. Mespreziatzekoa ote da, adibidez, galdu berri ditugun *XALBADOR* eta *ETXAHUN*- en Musa bukolikoa?

Badakit ez dela hortan mugatzen eta edeiten Euskal-Herri guztia, ez garela hiri gabeak. Baina hor dago baserria ere. Eta lur oparo hortan, ondoko batzuek artatzen hasi dute haritz agian kultoago bat, jakitunago bat. Poesiaz ari garenaz geroz, nolaz ez aipa sail hortan OXOBY zena, Jon *MIRANDE* zena, Aita *IRATZEDER*, Mañex *ERDOCAINCY ETCHART*, Eñaut *ETCHAMENDY*, Daniel *LANDART* eta atzo ehortzi den Michel *LABEGUERIE*?

Ez, ez da idorra ez agorra Antonio Abadia Urrustoik utzi digun lurra. Pottoka balitz ere zaldun horrek utzi digun zaldia, ez da segur mandoa.

Eta bururatzen dut bi hitzekin: Antonio Abadiak bere mintzaldien bukaeran gogotik oihustatzen zituen bi hitzekin, Arturo *CAMPION* iruiñear euskaltzain haundiak asmatutako bi hitzekin, haurride maiteak:

ZAZPIAK BAT!

BIDASOALDEKO ZENBAIT BEREZITASUN

Bera, 1980-VII-31
Euskal Besten mendeurrena

Jose M.ª Satrustegi

Euskal festen sortzaile eta eragile izan zen d'Abaddie ospetsuaz mintzatu zaigu, oraintxe, Davant adiskide xuberotarra. Merezimendu handikoa gure hizkuntza zahar bezain zokoratuaren egoera astinduz, plaza giroa sortu zion gizonaren lana.

Azpimarratu behar da, bertze alde, herrian izan zuen erantzun zaratatsu eta emankorra. Pizkunde itxaropentsuaren inarrosaldi sendoa, gau luze baten ondoreko egunsenti argia, jaiotza berriaren pareko erdiminen emaitza pozgarria. Amets ederregia, berezko loratze jorra gabea izan zela sinesteko.

Ez. Gauzak ez dira gehienean itsu mutuan mundura etortzen. D'Abaddie jauna ez zen Robinson Crusae baten antzera, nunbaiteko basagizon bakarti gertatu XIX.mendeko eusko-kulturaren eragin honetan. Ekintza guziek badute, gizonarekin batera, bere ingurua; eta inguru horretan dira burubideak sortzen eta mamitzen.

Hasteko, Euskal-festak Iparraldean sortu ziren: ez ahantz hori. Literatur mailako lehen iturriak xurgatu genituen mendialdean, noski. XVI. mendean Eiharalarreko erretor zen Etxepare argiak hantxe eman zigun, bertso eder eta jantzietan, guregana heldu izan den lehenbiziko liburu inprimatua. Liburu hau ez zen, gero, udaberri bateko ainara bakarra gertatu.

Hamazazpigarren mendean, bereziki, Iparraldeko idazleen eskola disdiratsu agertzen hasten da euskal idazleen izartegian. Axular-ekin hor dugu Lapurdiko izen kopuru aipagarria: *Etcheberri Ziburukoa, Hirigoyti medikua, Harismendy, Haranburu, Gillentena, Argaingarast* eta abar.

Bazter guzitan, ibiliz egiten da bidea, eta idazle hauek irakurtzeko ohitura sortu zuten herrian. Ez dut erranen baserritar guziek irakurtzen jakinen zutenik, bainan Hegoaldean ez bezalako giroa zegoen garai hartan mugaz handik.

Hemeretzigarren mendearen erdi aldera hasi zuen d'Abaddiek Euskal festen ekintza eta 25 urtez ospatu ziren, honako hiru herri hauetan: hameka urtez Urruñan (1853-1863), hamairu urtez Saran, eta urte batez Donapaleun.

Duvoisin eta Vinson bezain izen ezagunak ibili ziren eratzailearen inguruan, eta J. B. Ellissamburu eta J. Oxalde bezalako olerkariak agertzen ziren sarituen artean. Erantzunkizun haundia Hegoaldeko jarraitzaleentzat.

Muga

Erresuma biren artean banatua dugularik gure Euskal Herria, Iparralde eta Hegoaldearen arteko muga da, alderdi honetan, Bera-ko herria. Hau da bereiztasun aipagarri bat. Honek giro izkutu bat sortzen du bizian: arrotzentzat muga izanik, bertakoentzat mugarik-eza.

Zaila da askatasuna maite duen txoriari airean mugak ezartzea. Bertako biztanleei bortz ajola zaie bideko mamu guzien itzala: bidez ibiltzerik ez dagoelarik, mendia da gizonaren irtenbide; egunez ezin badu, gauez joango da.

Horrelako zerbait gertatzen da hizkuntzarekin. Nola egiten duzue 'kontrabandoa'? galdetu genion behin Arantzazuko misiolari batek eta biok Luzaideko gizon bati.

—*Euskaraz eta gauaz*, erantzun zigun berak.

Hizkuntza izan da, mendez mende, alderdi bien lokarria. Salatariak inguruan izanik ere eta begiz ikusi, bihotzaren zirriturik izkutuenean gorde ohi ditu hizkuntza arrotzak asmorik ausartenak.

Mugazainek badakite hori, eta goarda euskaldun bat sartu zuten Donibane Garaziko jendarmerian. Bere egurrekoa badu zuhaitzak ezpalik gogorrena, buruhauste haundiak ekarri zizkien bertakoei goarda euskaldunak. Behin eta berriz harrapatuak ziren, fraile baino lehen sukaldalari izandako jendarmerekin. Bide eta zoko guziak ongi ezagutzen zituen mugaldean hala nola 'ofiziokoen' urratsak. Zaila zen kontrabandoa egitea.

Sistima berriak asmatzera behartuak izan ziren gure gizonak, eta bai asmatu ere. Abere saldo haundia eramatekoak ziren gau batez Hegoaldetik Iparraldera. Egunez ez zuten bakerik mendi horietan, helikoteroz jarraitzen bait zieten jendarmek.

Kontrabandoko abereak oihan beltzean sarturik, Baigorri, Urepel eta inguruko behor eta zaldiak bildu omen zituzten mendian, eta itzal gutxiko lepo batean elkartu.

Berehala, jendarmek bazekiten horren berri eta badoaz ilunabarrean bidera. Mugan bertan jabetu ziren saldoaz eta Donibane Garazi-ra jaitsi. Bitartean, inoren beldurrik gabe egin zuten beren lana baserritarrek.

Esnatze txarra izan zuten eguerdi aldean goardek, abereak ebatsi zizkietela ta, oihuka agertu zirelarik Donibanen baserritarrak.

Hizkuntza eta kultur giroan ere bere marka utzi du mugak. Frantsesaren kutsua nabari du han euskarak, Hegoaldean gaztelaniarena bezala. Ez da hizki edo letra batzuen ahoskatzeko modua bakarrik; hiztegia ere baten ala bertzearen iturritik hartzen du gure hizkuntzak eta, joskera bera zenbat aldiz ez du trakestu aldameneko harremanen kutsuak!

Mugako herriek giza-izaera oso berezia dute. Bertan bizi arte ez nintzen ni horretaz jabetzen. Filosofia oso berea du fronterako baserritarrak. Bi uretako arraina. Bizi beharrak erakusten du hori.

Gerra delarik han edo hemen, ez da hain zaila Berako mutilarentzat Saran agertzea, eta Sarakoarentzat Beran sartzea. Euskal Herrian beti. Horrexegatik, Axular, Urdazubiarra eta mugaz hegoaldekoa, Iparraldeko Saran egon zen erretor. Salamankako unibertsital jakintza baliatu zuen, Lapurdiko idazleen eskolako euskara landuan. Ez dut uste, Urdazubin ala Saran, bere burua inoiz arrotz senditu zukeenik.

Ez da beraz harritzekoa, 25 urtez bere emaitza pozgarria Iparraldean eman zuen Euskal festen mogimenduak, Elizondo eta Bera, mugako herrietan bere jarraipena aurkitzea.

Bidasoa

Bidasoa ibaia, ez dakit zergatik, literatur giroko zerbait zitzaidan beti belarrietan. Ikastaroko urteetan izan nituen irakasleen aipamenak eta Bidasoa inguruan izan diren idazle espetsuak dabilzkit, mitogintzako salda gozoan, akuilari.

Sorgin ametsak ere ekartzen zizkidan burura Barojaren *Erlaiz Zalduna* irakurri ondoan. Pozgarri izan zen, nire gaztaroan, Bidasoa lehenengo aldiz ikusi nuen eguneko sentipena. Herri jakintzako sorgin, lamia eta antzinako gure jainkoen egoitzako arnasa sakona hartu nuela iduritu zitzaidan. Eta gaur bertan, ez da niretzat bertze ibaiak bezala.

Agoustin Etcheberrik irabazi zuen Bera-ko Euskal-festetan bigarren saria. 'Deserturra' deitu zuen bere lana, eta soldadutza ez egitearren ihes joandako mutil baten herrimina adierazten du bertsotan. Sort-herriko ibaia eta mendiak ditu gogoan, azken hitzetan:

"Ur-xirripa ez da galtzen nihoiz bere bidetik,
Ez eta ere harroka sarthua den menditik:
Hek bezala sorlekuaz amodio izanik
Zuhur denak kanta beza beti bere herritik".

Urak joan eta urak etorri bi erresumaren erdiko ispilu beti, nork konda ditzake lurralde honetako gertakizunak Bidasoa ibaiak bezain ongi?

Frantziarekin ongi etorriz, ezin Españiarekin haserrè agertu, ofizailki bietatik bait ditu bere urak oheratzen, bihotza duela beti euskaldun.

Bidez bide doa menditik itsasora, Nafarroatik Gipuzkoara, ezker aldean erresuma bateko lurrak milikatuz, eskubiko saihetsean beste etsaiaren bularrak laztantzen dituela.

Bidasoa errekaren zama astuna, bi nagusiren morrontza jasaiten bere buruaren jabe ez dela! Norenak dira zure amuarrainak? Norentzat dituzu zure ur garbien begirada xumeak?

Begietan duzu askatasun bakarra. Ez dizu inungo hormak alderdi bietako mendi maiteak ikustea eragozten. Eta gauez, mugazainengandik ihesi norbaiten hankak direlarik zure isiltasunaz baliatzen, ez diezu pasaporterik eskatzen, ez nun dabiltzen galdatzen. Zure begi argiek ez dute deus ikusi, zure ur kirikalarien bizkar gainean ez da salaketarako inorentzat susmo txarrik.

Zakurrak baldin badatoz, gizonek bialduta, herriko mutilaren odol errestoa usainka, zuk diezu bidea mozten: ez dute zuregandik zakurrek ere fitxik usmatuko. Atzera doaz.

Zoritxarrez Euskal Herriarentzat, isiltasun horrek ez du inoiz, inon, hitz erdi bat atera; ez diozu kondaira luze horren orritxorik zure Ama Lurri ere belarrira murtxikatu sekula:

—Eta ez dugu aitamen berririk etxean.

—Haizeak eraman ditu arreba bortxatuen gaueko negarrak.

—Ezeztatu egin da anaia zaurituen mila gudutako odola.

—Bidean hilentzat nun otoitz eginik ez du gure herriak.

Egun batez, Shantell-errekak nunbaiteko ahotsa entzunarazi zizun arbasoen erranak errepikatuz, eta misterioz bete ziren bazter guziak. Antziñako uren zurrumurrua eta kobazulo guzien emari iluna mamiturik, ikusi zenituen 'Itzea'-tik zetorren oihu berrian.

Eta itzuli zinen, lehenbiziko aldiz zure bizian, leiho zulotik sudurrak sartzera. Euskaldunon izpiritua zen agure ilun baten luma zarkailduak berpizten zuen arnasa.

Pio Baroja-ri zor diozu egun horretan hartu zenuen zure biziko poza.

Euskal-festak

Hogeita bortz urteko nekea gainean zaramaten Iparraldean d'Abbadie jaunak 1853an hasitako Euskal-festek. Donapaleu-ko emaitza, batez ere, oso eskasa izan zen 1877an. Hogei bat lan aurkeztu ziren eta, Xuberoa bertsolari eta kantore arloan hain emankorra izanik, lehenengo saria Urruñako nekazari batentzat izan zen, eta bigarrena gipuzkoarrak eramen zuen.

Duvoisin kapitainak antza eman zion eta Salaberry xuberoarrari egindako gutun batean, hainbeste bertsolari on eman duen lurraldea oso motz geldi-

tu dela adierazten dio, nahigabe haundiarekin. Horrexegatik, behar bada bertze urte batez Xuberoan Euskal-festa hauek berritzeko erabakia zerabilten arduradunek buruan.

Gauzak bertze bide bat hartzera zihoazen ordurako. 1879ko festa haien ondoan, d'Abbadie jaunak egoera txarra sumatzen du Hegoaldeko eskualdunen artean, foruen zapalketa delata. Gure ohitura zaharrekin hainbat ikusteko bazuen horrek hizkuntzarekin, eta begiak Baztan-Bidasoa aldean kokatzen hasiak zituen antolakizun hauen aitak. Nola edo hala gure hizkuntza zaharrari zutabe sendoak ezartzea nahi zuen berak, eta ez zaio tokiaz ajola haundirik.

Bertze arrazoin bat ere bazuen gogapen hau aintzina eramateko orduan bere alde: 'Nafarroako Euskal Elkargoa' bere aldetik lanean ari zen, eta laguntza ona aurkituko zuelako uste osoa zuen. D'Abbadie jaunaren ustea ez zen ustela gertatu. Laguntza eta adiskide haundi batzuen euskaltzatasuna aurkitu zituen Iruñean.

Duvoisin ez zen kontent. Xuberoko bere plangintza hautsirik ikusten du, bat batean, eta Nafarroako asmoetan ez du gehiegizko itxaropenik. Bere ustez, Euskal festen azken urratsa izango zen. Ez dakit nik Bidasoa ibaian itotzeko beldurra edo zer zukeen. Xuberoko Salaberry-ri agertzen dizkio bere kezkak.

Denok dakigunez, Elizondoko ospakizuna Euskal festen heriotzerako ez baina, pizkunde eta indarberritze baterako bide gertatu zen. Bi izen ospetsu agertu ziren, bertzeak bertze, jaialdi horietan: Felipe Arrese Beitia, lehen sariaren irabazlea, eta J. M. Iparragirre.

Duvoisin bera ere pozik gelditu zen Elizondoko gertakizunarekin, eta hala agertzen dio Campioni: "*Vous, Navarrais, vous avez pris une initiative féconde; le Guipuscoa s'apprête à vous suivre; vous verrez la Biscaye s'émouvoir à son tuor. Gardez votre primauté. Qui sait ce que nous reserve l'avenir?*" (RIEV.1930, p. 360).

Hegoaldeko jaialdi honek Donostiako ospakizuna ekarri zuen atzetik, irailaren 7an. Bide onetik sartu ziren Iparraldeko haizeak gure artean, eta giro honetan eman zitzaien hasiera Berako festei.

Abuztuaren 2an suak piztu ziren kaleetan, ezkilak jo ondoan. Beste gar baten irudi ziren gure hizkuntza zaharraren berpiztu nahiean. Herriko mugak baino zabalago hedatuz, hots haundiko zerbait munduari ematen zitzaiolako susmoa ageri zen karrika giroan.

Lehenengo eguna, abuztuaren hiru, etxekoentzat izan zen. Goizeko hamarretan, gaur eguneko eguerdi, meza nagusia. Bitor M.ª Perostena, bertako erretorea mintzatu zitzaien euskaraz, eta agintariei lagundu zieten hogei ta hiru dantzariek "Kordon-dantza" borobildu zuten gero, herriko plazan.

Gaur bazter gehienetan galduak diren bezperak abestu ziren arratsaldean, elizkizunaren atzetik 'aurreskua' dantzatzeko. Erromeriaren hasiera herriko plazan.

Badator, horrela, mendeurrena ospatzen diogun egun haundia, abuztuaren laua. Makil-dantza eta danbolin soinuz eman zieten Berako jendeek Iruñeko gizonei ongietorria. Bi izenen aipatuko ditugu: Hermilio Oloriz eta Arturo Campion.

Aipamen berezia merezi du aurrez-aurre ezarria zen Españako bandera haundiak. Bi burubide nagusi oihalaren ezker eskubi 'Biba Euskaldunak', alde batean, eta 'Biak bat', bestean. Bera eta Altzate elkartzen zituen adierazbidea. Osasuna eta ogian gatza, eskas direlarik dira bakarrik nabaritzen; ba ote zen auzo bien elkartasunean zerbait eskas? Gauza haundia bezala, urte horretan behintzat, hiriburuko gizonei batasun anaikorraren berri ematen zaie ongietorriarekin batera.

Udako euria eta denbora txarra ez dira nunbait oraiko kontua. Altzaten antzara-jokua egin orduko euria hasi, eta segalariek ez zuten apustua egiteko aukerarik izan. Pilota partida ere ez zen bukatu.

Denbora txarrari aurpegi ona agertuz beren trebetasuna agertu adierazi zutenak bertsolariak izen ziren. Bertan sortutako Elicegi anaiek, zortzira lerroko 127 bertso bota zuten berrogei minutotan. 1016ko lerrokada, beraz. Pedro Jose Elicegi, Asteasuko errotari zen, eta Juan Kruz, bere anaia Oiartzun bizi zen. Dirudienez, ez zituen gaiak inork gogoan hartu, baina norbaitek bai kondatu.

Sariak

Bizkaitar bat izan zen Nafarroako Euskal-festan txapeldun. Felipe Arrese Beitia-ren "Ama Euskeriari azken agurrak" jaso zuen Elizondon lehenbiziko saria. "*Rien de vrai, de patriotique, de poignant, comme les larmes de sang de ce cantabre*", idatzi zion Duvoisin kapitainak D'Abbadie bere adiskideari.

Bi olerki aurkeztu zituen otxandioarrak Berako festetan: "*Euskeldun baten gogoraziñoak*" eta "*Gizonaren zorigatxa*". Tankera bereko bertsotan eginak dira biak eta esku bera dutela ikusten da. Behar bada horrexegatik sari batean sartu zituzten mahai burukoek. Lehenbiziko saria irabazlerik gabe utzi zuten, eta sari berezi bezala, Arrese Beitia-ren bi olerkientzat izan zen urrezko domiña.

Lehen erran bezala, zilarrezko saria Sarako Agoustin Etcheberrirentzat izan zen, "Deserturra" izeneko lanagatik. Arturo Campion agertzen da mahaiko idazkaritzan.

Ez naiz festako oroimenetan luzatuko. Bidasoa ibaiko urak mintza bitez. Gertakizun pozgarria euskararentzat apaindura egoki eta plaza-soineko berriz jantzita gure hizkuntza zaharra festara eraman zutenena.

Baina, gero zer?

Euskarak barne muinetan zuen harra, eta atzerakada haundia egin du ehun urte hauetan. Hegoaldean odol hustu zaigu Nafarroa, eta Iparraldean etorkizun gutxi ikusten diogu, ez bada egoera zeharo aldatzen.

Euskararen aldeko festak eta ehunurtemuga heriotz onaren lagungarri bertzerik ez dira izango, euskaldunok behingoan gure mintzaira erabiltzen ez badugu. Ofizialtasuna, telebista, egunkariak eta irratia behar ditu euskarak; bai noski. Baina, horiek ez dira lagungarri baizik.

Geuk salbatuko dugu euskara, ez ofizialtasunak. Euskara ahozkako dabilen neurrian biziko da, eta egiten ez dugun neurrian hilen.

Bertze ehun urteren buruan ez dezatela erran, festa polit eta ofizialtasun amets ederrekin hiltzen utzi geniola gure arbasoan hizkuntza zaharrarri.

Hau da, euskaltzaleok, nere kezka. Barkatu.

BORTZIRIETAKO ERAKUSLEEZ

Bera, 1980-VII-31

Patxi Iñigo

Bortzirietako erakusleen berezitasunak aipatzen hasi baino lehen, beharrezko iruditzen zait, ematera noan datuak, non eta nola jaso ditudan laburki agertzea. Lantto hau egiteko Bortzirietako bortz herriak ibili ditut, hala nola: Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesaka, herri bakoitzean guttienez hiru pertsonari galderak eginez.

Pertsona horiek aukeratzerakoan, irizpide batzu gogoan hartu ditut. Horrela, berexi ditudan pertsona guztiak, euskaraz erdaraz baino errazago mintzatzen dira; euskaraz eskolagabeak dira, herrian jaioak eta bertan bizi direnak. Honez gain, herri bakoitzean aukeratu dituztenen artean, bat guttienez baserritarra da eta bertze bat herritarra.

Deklinabidearen kasu guztiak bildu baldin baditut ere, orain hemen ez ditut denak emanen, nahiko luze eta aspergarri eginen bailitzaizueke. Horregatik, bakarrik kasu batzu aipatuko dizkizuet, adibide batzuren bidez argituz eta agian arinduz.

Ohar hauek egin ondoren, goazen bada, erakusleei buruz gure herriek dituzten bereizgarriak agertzera.

- Har dezagun hasteko, NOMINATIBO kasua PLURALEAN:
  - HAU pluralean = HOK bihurtzen zaigu; eta HURA = HEK. Adibidez: HOK etorri zaizkigu; HEK ikustera joan gara.
  - HORI, berriz, aldatzen zaigu. Eman dezagun: "horiek erori ziren" erraldia. *Arantzan* eta *Igantzin:* "HORIK erori ziren" erranen dute. *Etxalarren:* "HOIEK erori ziren". *Lesakan:* "HOIEK erori ziren" edo "HORIK erori ziren". *Beran:* "HOIEK erori ziren" edo bai eta ere, nahiz urriago, "HORIEK erori ziren".
- Ikus dezagun orain ERGATIBO kasua SINGULARREAN:
  - HAU = HUNÉK edo HONÉK bihurtzen da. Nork ordaindu du ardoa?, galdetzen badugu, *Arantzan, Beran* eta *Etxalarren:* "HUNÉK ordaindu du" erantzunen digute. *Igantzin:* "HONÉK ordain-

du du". *Lesakan:* "HONEK ordaindu du edo HUNEK ordaindu du".

– HORI = HORRÉK gelditzen da; eta HURA = HARÉK, bortz herrietan: "HORRÉK erosi du eta HARÉK eraman".

• Har dezagun orain GENITIBO EDUTEZKO kasua PLURALEAN:

– HAU = HÓKEN edo HÓKIN bihurtzen da: Norena da liburua?, galdetuz, *Arantzan, Etxalarren* eta *Igantzin:* "liburua HOKENA da", erranen dute. *Beran* eta *Lesakan:* "liburua HÓKINA da".

– HORI = HORÍKEN, HORÍKIN, HORÍEKIN, HÓIKEN, HÓIKIN agertzen da. Noren eskola da hau? *Arantzan* eta *Igantzin:* "haur HORÍKEN eskola da". *Beran:* "Haur HÓIKIN edo HORÍEKIN eskola da". *Etxalarren:* "haur HÓIKEN eskola da". *Lesakan:* "haur HÓIKIN edo HORÍKIN eskola da".

– HURA = HÉKEN edo HÉKIN gelditzen da. *Arantzan, Etxalarren* eta *Igantzin:* "HÉKEN zakurra hil dute". *Beran* eta *Lesakan:* "HÉKIN zakurra hil dute".

• Goazen orain DATIBO kasua aztertzera:
SINGULARREAN: gutti aldatzen zaigu: HUNÉRI edo HONÉRI; HORRÉRI eta HARÉRI. adibidez: "HUNÉRI edo HONÉRI aditukatu diot"; "HORRÉRI aditukatu diot"; "HARÉRI aditukatu diot"

PLURALEAN, berriz:

– HAU = HÓKERI edo HÓKIRI gelditzen da: *Arantzan, Etxalarren* eta *Igantzin:* "itxe HÓKERI su eman diete". *Beran* eta *Lesakan:* "itxe HÓKIRI su eman diete".

– HORI = HORÍKERI, HORÍKIRI, HORÍEKIRI, HÓIKERI, HOIKIRI. *Arantzan* eta *Igantzin:* "dirua HORIKERI eman diet". *Etxalarren:* "dirua HOIKERI eman diet". *Beran:* "dirua HÓIKIRI edo HORÍEKIRI eman diet". *Lesakan:* "dirua HÓIKIRI edo HORÍKIRI eman diet".

– HURA = HEKERI edo HEKIRI gelditzen da. *Arantzan, Etxalarren* eta *Igantzin:* "HEKERI saldu diet itxia". *Beran* eta *Lesakan:* "HEKIRI saldu diet itxia".

• INESIBO kasua honela agertzen zaigu:

SINGULARREAN:

– HAU = HUNÉTAN, HÚNTAN, HONÉTAN, HÓNTAN. Berriz ere adibide baten bidez hobekiago ikusiko dugu. Non bizi zara?, galdetzen badugu, *Arantzan:* "baserri HUNÉTAN bizi naiz" erranen digute. *Igantzin:* "baserri HONÉTAN edo HÓNTAN bizi naiz". *Beran* eta *Etxalarren:* "baserri HÚNETAN edo HUNTAN". Eta

Lesakan, lau moduotara: "baserri HUNEATAN edo HÚNTAN edo HONÉTAN edo HÓNTAN".

- HORI = *Arantzan* beti HORRETAN: "mendi HORRÉTAN daude gure ardiak". *Beran, Etxalarren, Igantzin* eta *Lesakan:* HORRÉTAN edo HORTAN: "mendi HORRÉTAN edo HÓRTAN daude gure ardiak".

  – HURA = *Arantzan,* beti HARÉTAN: "mahai HARÉTAN utzi dugu liburua". *Bertze lau herrietan,* HARÉTAN edo HARTAN: "mahai HARETAN edo HARTAN utzi dugu liburua".

  PLURALEAN:

  – HAU = HÓTAN, bortz herrietan: "mendi HÓTAN ikusikatu nituen".

  – HORI = HORÍTAN, HORÍETAN, HÓITAN, erabiltzen da. *Arantzan* eta *Igantzin:* "behiak soro HORÍTAN bazkatzen ditugu". *Beran:* "behiak soro HÓITAN edo HORÍETAN bazkatzen ditugu". *Etxalarren:* "behiak soro HÓITAN bazkatzen ditugu". *Lesakan:* "behiak soro HÓITAN edo HORÍTAN bazkatzen ditugu".

  – HURA = HÉTAN, bortz herrietan: "Alor HÉTAN erein dugu artoa".

- Ikus ditzagun orain bizidunen kasuak:

- INESIBO kasua egiteko, GENITIBO EDUTEZKOari, -battan edo -baitan atzizkia iraxten zaio. *Etxalarren:* -BAITAN; eta *bertze lau herrietan:* -BATTAN: HONÉNBATTAN, HOKÉNBAITAN, HEKINBATTAN, e. a.

- ADLATIBO kasua egiteko, -GANA atzizkia iraxten zaio: HORRÉNGANA, HARÉNGANA, HÉKINGANA... herri bakoitzean GENITIBO EDUTEZKOaren bereizgarriak sartuz.

- Eta bizidunen ABLATIBO kasua?

  Erakusleen ikerketa hau egiten hasi nintzenean, iruditu zitzaidan, Bortzirietan ABLATIBO kasuan ez zirela bizidunak eta bizigabeak berexten, nik egindako galderei atzizki berberaz erantzuten baitzidaten, aldiero bizigabeen atzizkia sartuz, alegia: "itxe HUNÉTIK ateri da" eta "gizon HUNÉTIK ikasi dut"; "Itxe HORRÉTIK eta gizon HORRETIK". Eta berdin pluralean ere: "Itxe HÓTIK eta Gizon HÓTIK; itxe HÉTIK eta gizon HÉTIK". Eta nik aukeratutako pertsonek erantzun zidatenez, behinik behin, fenomeno hau bortz herrietan gertatzen zela ikusi nuen.

Baina gero, xaharrek bizidunak eta bizigabeak ABLATIBO kasuan ere argi berexten dituztela ohartu nintzen. Eta horrela, Berako *Suspela* auzoan

bizi den hiruetan hogei eta hamalau urtetako andre batek eta *Alkaiaga* auzoko hiruetan hogei eta hemeretzi urtetako amatxi batek, garbi berexten dute: "itxe HUNÉTIK, baina gizon HUNÉNGANDIK; itxe HORRÉTIK, baina gizon HORRÉNGANDIK". Eta berdin pluralean ere: "andre HOKINGANDIK, HÔIKINGANDIK, eta HÉKINGANDIK". *Zalain-Zoko* auzoko lauretan hogei eta hiru urtetako aitatxi batek ere, bizidunei -GANIK, atzizkia sartzen die: neska HUNÉNGANIK, HORRÉNGANIK, HARÉNGANIK, HÔKINGANIK, HORÍKINGANIK, eta HÉKINGANIK.

Etxalarko hiruetan hogei eta hamasei urtetako andre batek ere, bizidunei -GENIK atzizkia sartzen die: "mutil HUNÉNGENIK, HORRÉNGENIK, HARENGENIK, HÔKENGENIK, HÔIKENGENIK eta HEKENGENIK.

Eta *Arantzan* ere, lauretan hogei eta lau urtetako amatxi batek, NONDIK? galderari, -TIK atzizkiaren bidez erantzuten zidan bizigabea zenean; eta -GATIK atzizkiaz biziduna zenean: "itxe HUNÉ-tik, baina andre HUNÉNGATIK". Eta zalantzan gelditu nintzen, -GATIK delako atzizki hori, MOTIBATIBO ala ABLATIBO gisa erabiltzen ote zuen.

Nola nahi dela, argi ageri da, bizidunekin erabiltzen den -GANDIK atzizkia, hiruetan hogei urtetatik beherakoek nekez erabiltzen dutela; hain zuzen urteotan galdu dugula edo galtzen ari garela.

Hona hemen bada, herriotan bildu ditudan datu batzu. Betidanik aditukatu dugu, eta jakin ere ba dakigu, euskara euskalki batzutatik bertzetara biziki aldatzen zaigula. Baina ikusi dugunez, ondoko herrietan ere nahiko ezberdintasun eta berizgarri aurkitzen dugu. Gaur aipatu ditugun herriak elkarren ondoan daude eta hartu eman frango ba dute. Halere ikusi dugu kasu batzu hiru, lau eta bortz modutara erraten direla. Eta ez ditut herri bakoitzean, auzo batetik bertzera dauden diferentziak aipatu.

Honek alde batetik halako zailtasuna eta nahaskeria sortzen badizkigu ere, bertze aldetik euskarari aberastasun haundia ematen diola uste dugu; horregatik, ez litzateke alfer lana izanen, herri bakoitzaren bereizgarriak hobeki ezagutzen eta ahal balitz biltzen saiatuko bagina.

Eta gehiagokorik gabe hemen uzten dut gaurkoz nire hitzaldittoa.

BERAKO GIZON OSPETSUAK EUSKARAREN INGURUAN

Bera, 1980-VII-31

Aingeru Irigaray

Jaun andereak eta agintariak; agur xoil bat bukatzeko, hemen bildu zaratenoi, eta oroitzapen bat; lehenago herri maite honetako euskaldungoa laguntzen eta altxatzen izan direnendako. Neri ez doakit orain, sobera ezagun izenak aipatzeaz besterik hemen, bertze batek merezi duten bezala azaldu bide dituelakotz Berako lurraldea eta bai euskaltasuna ere sustatu dutenen egitateak;

...Aita Erroman Dornaku, hiztegilaria eta olerkalaria, Barojatarrak, Pedro Etchenique, Larramendi, Aita Errandonea, Latxaga, Seminario de Rojas euskaltzain propioa izana, Fagoaga kantaria eta bertze oraino.

Baina hemen azpimarratu nahi nituzke hoinbertze eta hain ongi Berako euskal bereiztasunak sustatu dituzten gazteak gaur egun, Ikastegietan edo besta - biltzarretan... eta baita ere euskal, hauek bere baitarik edatzen dutelako gure mintzaira maitea...

Halaz eta guztiz, gazte horiek goresmen bizienak merezi dituzte eta nihahurk gogotik eskeintzen neure aldetik.

Eta honekin, mila esker aunitz denoi, nereganako izan duzuen egonarria-rengatik.

* * *

Gaur nere esku utzi didaten gaiak honela dio: "Berako gizon ospetsuak euskararen inguruan".

Gai honetan, beratar gizon ospetsu frankok lekua izanen luke, baina hitzaldino honetarako bi bakarrik beresi ditut: Aita Roman Dornaku Olaetxea eta D. Juan Errandonea Alzuguren.

Gainerakoak barka nazatela.

Lehenik Aita Romanez mintzatuko naiz:

Aita Roman 1877. urtean jaio zen Illekuetako Alzugaray-an. Familia pobre baten 12garren senidea. Haren gurasoak Berako Asiloan hil ziren. Haurtzaroan gorriak ikusi zituen; Kaputxino sartu zen eta gazterik misiotara juan zen. 40 urte baino gehiago misiolari ibili zen Filipina aldean. Azkeneko urteak Hondarrabian egin ondoren, orain dela 21 urte hil zen, 81 urterekin.

(Xehetasun gehiago jakin nahi duenak hor daukazue D. Joakin haren berri emateko.)

* * *

Erran bezala bere Herritik urrun ibilikatu zen beti, baina haren biotza non zebilen jakiteko, aski dugu haren eskutitzatara jotzea; haietan ikusiko dugu nolako atseginez aipatzen dituen Berako xoko guziek eta haurtzaroko lagunak.

Berekin batean xako bat ibiltzen omen zuen Berako lurraz beteta, eta ailegatzen zen herri guzietan lur hartatik piska bat ixurtzen omen zuen Berako azia erein naharik edo...

Beti Beratarra eta beti euskalduna, bere lagun haundi Roman Achari, haserre egiten dio, Bera utzi ta Iruñera bizitzera joan delakoz.

Bere eskutitzatan, nahiz ia beti gaztelaniaz idatzi, lerro tarte guzietan euskal hitzak eta esaldiak sartzen ditu.

Axularren *Gero*, zuen bere libururik maiteena.

14 hizkuntzatan mintzatzen zen: euskeraz, gaztelaniaz, latinez, grezieraz, hebraieraz, italieraz, frantsesez, ingelesez, bikol pampangoz, pagasinanes, tagaloz, chamorroz, japonieraz.

Aitegatzen zen tokietan, gramatika eta hiztegi bat uzten zuen, misiolari berriak hango hizkuntza errazago ikasteko.

200 liburu baino gehiago idatzi zituen.

Gauza aberats eta baliotsutzat dauzkate Washingtongo Kongresoko Liburutegian, gordeta.

Euskeraz edo euskerari buruz idatzitako batzuek hauek dira: euskerazko bertsu batzuengatik Buenos Airesen lehen saria irabazi zuen 1908. urtean.

– 40 urte geroago "Urte guziko apezen gogoetak" berak dioen bezela, Berako euskeran edo Axularren euskaran idatzia.

– Diccionario vasco-castellano, castellano-vasco.

– Badu bertze liburu bat oraindik argitaratu gabea bear bada interesgarria bere herritarrentzat: "Berako 100 gertaera".

Ageri danez gizon honen bizia harrigarria izan zen eta haren lanak bazter guztietan estimatuak.

Iparamerikako Lehendakariaren eskutik, medalla eta diploma hartu zituen.

Berako herria hoinbertze maite eta goraipatu zuen seme ospetsu hau, Beratarrok ez dugu behar bada, mereziko lukeen bezala ezagutu eta estimatu.

* * *

Bigarren gizona erran dugu: D. Juan Errandonea Alzuguren. Beratarrontzat Zigardibereko Juanito.

Juanito Berako baserritarra zen eta baserria maite zuen. Nahiz Madrilen katedratiko eta Erroman doktore, barkazioak, uda eta negu, baserrian pasatuko zituen. Egunero Zigardiberetik elizarat eta elizatik Zigardiberera oinez, bidean kopetako izerdia kenduz, ikusiko genuen, edozein haur, gizon edo emakumekin, denboraz, azindaz edo arto lurraz mintzatuz gehiagokorik ikasi ez balu bezala.

Eta hor barna ere etzuen bere burua gehiegi agertu nahi izaten.

Orain dela 14 urte hil zen ustekabean, gazte zelarik, 49 urtetan, Madrilen Unibertsitate Nagusiko Sumerio edo Ekialdeko kulturako Katedratiko zelarik.

Orduantxe argitaratua zuen liburu harrigarri bat: "Eden y Paraiso".

Pare gabeko liburua Biblia gaietan, Espainian inor ez bezala prestatua bai zegoen, Ekialdeko kulturan eta hango hizkuntza zaharretan.

Harrituta gelditzen da bat zenbat hizkuntza zakizkien ikusita. Aipatu dugun liburu horretan garbi ageri da hizkuntza pila batez baliatu zela eta erabili ere erabiltzen zituela.

Italiera, Gaztelania, Nederlandera, Flamengera, Suediera, Errusiera, Turkiera, Txekiera... Eta hau, hizkuntza zaharrak aipatu gabe.

Testamentu Zaharra ongi sakontzeko, Latinetik hasi eta Greziera eta Hebraiera ikasi ondoren, Arabiera, Arameora, Acadiera, Sumeriera eta nork daki... berak ez baitzuen sekulan aitortzen. Horregatik nahi eta ez "Jaungoikuak bakarrik daki" erran bihar, zenbat hizkuntza erabiltzen zituen.

Behin baten berak kontatu zidan, udaran Zigardibereko gela txiki hartan, frantses edo ingeles eskola haurrei ematen zienian, hizkuntzaz edo gramatikaz piska bat nahasi omen zen. Ez da harritzekoa!

Habildade hainbat zaletasun bazuen. Apaiz gai zeneko, bere gisa eta inoren laguntzarik gabe, hizkuntzak ikasten hasi zen.

Gerra denboran, soldado zegoelarik, aldizkarietaz eta geroago gramatika batez baliatuz, Errusiera ikasi zuen.

Bertze aldi batean, bere lagunak, gramatika turko batekin ari zela arrapatu zuten.

Zenbait maisu kaxkarrek, makina bat aldiz erran digute euskaraz hitz egitea haurrak, traba egiten duela bertze hizkuntzak eta gramatikak ikasteko.

Joanitori galdetu behar...!

Joanito, Erroman Bibliako iturburuak eta sustraiak ongi bilatu nahian Ekialdeko kultura eta hizkuntza zaharretan sartu zen.

Eta horrela Sumerio ikasten saiatu zen. Berak dioenez, Sumerion sartzea da, gizatasunaren kulturaren histirian hasiera hasieran sartzea. Eta han euskaran kutsua edo arrastoa topatu zuen. Eta arrastoari segituz, ikerketa interesgarri bat egiten du.

"Analogias vascas en el vocabulario sumero-semitico", izenburu horrekin, artikulo batzuek argitaratu zituen *Antologika Annua* delako aldizkari batean.

Lehenik bi hitz hartzen ditu: ITZAL eta ZULO 1953 handik bi urtetara bertze hitza: ATZAPAR.

Bi artikulu luze horietan Joanitoren hizkuntzatarako aberastasuna ageri da; Erabiltzen ditu: Akadiera, Hebraiera, Aramaiera, Ugaritiera, Arabiera, Siriera, Etiopiera eta Sumerioera.

Ez da harritzekoa alemaniar linguistek erran zutena: "Non gorde da orain artio gizon jakintsu hau".

Artikulu horietan zera adierazten du: hitz horiek: ITZAL, ZULO, ATZAPAR, Sumerieran ere baduela eta horrek lexiko aldetik garrantzia baduela.

Horrekin ez du euskararen iturburua edo euskalerriaren sorterria arrapatu duenik, erakutsi nahi, baina, gutxienez, arrasto bat badagoela, bai.

Hitz horiek Sumerieran, Acadieran eta bertze Semita hizkuntzatan aurkitzeak, zerbait erran nahi duela. Hor zer ikusi bat badagoela.

Bertze burutazio batzuek ere egiten ditu.

Zori txarrez gazterik hil zitzaigun gure Joanito. Behar bada, bide horretan sakonduz segituko zukeen eta nork daki zer aterako zukeen. Oraindik fruitu ematen ez baitzen hasi bertzerik egin. Eta guk gaur ezin erran noraino joanen ote zen.

Joanitorentzat gure oroipena, eta Berako herriarentzat eta euskerarentzat, betiko bihotz mina, horrelako gizon jakintsua, bere jakinduariaren fruitua ematen hasi orduko, galdu genuelakoz.